

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

5474

AGINDUA, 2025eko azaroaren 18koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira ikerketa kooperatiboko zentroyen –IFZ– kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileei laguntzak emateko eta deialdia egiten baita (CIC programa).

Euskadiko zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-ekosistema eraldatzen eta sendotzen ari den honetan, ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ) funtsezkoak dira ezagutza sortzeko eta teknologia ekoizpen-sarera transferitzeko. Zentro horiek nabarmen lagundu dute gure erkidegoko bikaintasun zientifikoan eta industria-lehiakortasunean, eta erreferente bihurtu dira ikerketa aurreratu eta aplikatuan.

Orain arte, IKZen finantzaketa eta ikuskapena Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren mende egon dira. Baina lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua onartu zelarik, –dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu–, aurrerantzean Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak kudeatuko du eskumen hori.

Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila gure ekosistema zientifikoa eta teknologikoa indartzeko xedearekin sortu da, Euskadin ezagutza aurreratu eta berrikuntza bultzatzeko, eta horrek jauzi kualitatibo ekonomiko-teknologiko-industrialak egiteko aukera emango du. Horretarako, beharrezkoa da euskal sistema zientifiko-teknologikoaren ikerketa-gaitasunak sustatzea. Horrela, ikerketa-zentroyei lagunduz, gizarte guztiaren mesederako izan daitezkeen teknologia eta soluzio berriak garatzea ahalbidetzen da.

Esparru horretan, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak laguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez emateko deialdi berri bat jarri du abian, berriaz IKZei zuzendua. Laguntzak lau urterako pentsatuta daude, zentro horien finantzaketari egonkortasuna emateko eta ikerketa-ildo estrategikoen jarraipena bermatzeko. Neurri horren bidez, IKZen gaitasuna indartu nahi da, gai izan daitezen inpaktu handiko ikerketa-proiektuei ekiteko, diziplinarteko lankidetzak sustatzeko eta EAEko ezagutzaren ekonomiari egiten dioten ekarpena sendotzeko.

Deialdi honekin, ikerketa babesteko mekanismoak errealitate administratibo eta zientifiko berrira egokitu nahi dira, eta ziurtatu, IKZek beren lana behar bezala aurreikusi eta eraginkortasunez garatzeko behar dituzten baliabideak izango dituztela. Gainera, bikaintasun- eta transferentzia-adierazleetan oinarritutako ebaluazio-sistema zorrotz bat ezartzen da, ikerketara bideratutako funts publikoen kudeaketa gardena eta efikaza ahalbidetuko duena.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planak laguntza-programa bat aurreikus-ten du ikerketa kooperatiboko zentroentzako, lortzen dituzten emaitzak eta gaitasunak hobetzeko eta gero merkatura bideratzeko. Helburu hori lortze aldera, proposatzen du zentro horiek I+Garen balio-kate osoan garatzea beren jardueran, EAEn identifikatutako espezializazio-eremuetan etorkizuneko ikuspegiarekin ezagutza berriak sortzea, eta, aldi berean, bultzada bat ematea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen arteko lankidetzari.

Laguntzen zenbatekoa zehazteko, oinarri hartuko dira proposamen eta emaitzen ebaluazioa eta jardueraren ez-ekonomikoaren eta horri lotutako xedeen azterketa. Bestalde, zientzian eta teknolo-

gian ikerketa bikaina sustatze aldera, agindu honek aurreikusitako finantzaketaren zati bat izango da munduan ondo kokatuta dauden ikerketa kooperatiboko zentroetan proiektu bereziak garatzeko, eta, hartara, nazioarteko erreferentzia-zentro gisa sendotu daitezten laguntzeko. Horrela, bikaintasunera bideratutako finantzaketa gutxienez aurrekontuaren % 50ekoa izango da, eta, beraz, deialdi honetako aurrekontu erabilgarriaren gehienez % 50 erabiliko da IFZEN egiturazko finantzaketarako. Era berean, tokiko, nazioarteko eta nazioarteko mailan duten garrantziagatik, zentro horiek erreferentziazko eragile izan behar dute Euskadin, bai ezagutzaren gizarte-hedapenean, bai ikertzaileen ongizate psikologikoa sustatu eta zaintzeko orduan. Alde horretatik, agindu honetan sartuta dago zabalkunde zientifikoko plan berariazko bat izateko betebeharra, gizartearen kultura zientifikoa hobetzen areagotzeko, eta herritarrei jakinarazteko nola erabiltzen diren ikerkuntzara eta berrikuntzara bideratutako baliabide publikoak. Zentroko langileen ongizate psikologikoa zaintzeko plan bat ere aurkeztu behar da.

Deialdi hau Eusko Jaurlaritzaren IKUR 2030 Estrategiaren osagarria da. Estrategia horren helburua da Euskadin egiturazko aldaketak sustatzea, ibilbide luzeko ikerketa-ekimen enblematikoak bultzatuz, inpaktu zientifikoa, teknologikoa, enpresariala eta soziala sortzeko. Kontua da Euskadi nazioartean erreferentziazko gune zientifiko bihurtzea, halako moldez non Estrategiaren xede diren arlo zientifiko-teknologikoetan garapen industrial eta sozialerako aukerak sortuko dituen. Bestetik, eta IKUR 2030 Estrategiarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila azpiegitura estrategiko handiak garatzeko epe luzerako programa bat bultzatzen ari da, bikaintasuneko ikerketa zientifikoarekin lotuta. Programa hori LINKER (Large Infrastructures for Key Excellence Research) da, eta horren bidez, azpiegitura zientifiko estrategiko handiak jarriko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen esku. IKUR ekimenean xedea da osagarri izatea bikaintasun-ezagutza eskualdatzea sustatzen duten eta gizarte- eta enpresa-arloetan balioa ematen dioten beste programa estrategiko batzuentzat.

Bestalde, agindu honek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak xedatutakoa gauzatzen laguntzen du. Dekretu horrek ezartzen du aldian-aldian egiaztatutako eragileen jarraipena egingo dela, eta ebaluazio horren ondorioz, egiaztapen horri eutsi egingo zaio edo errebokatu egingo da.

Beraz, laguntza hauen xedea da IFZ zentroak garatzen laguntzea, finantzaketa esleitzuz proposamen eta emaitzen ebaluazioaren eta jarduera ez-ekonomikoaren eta horri lotutako xedeen azterketaren bitartez.

Eskabidea egiteko, inskripzio-inprimakia bete beharko da, sailaren egoitza elektronikoan telematikoki eskuragai egongo dena, betiere urtarrilaren 11ko 4/2022 Dekretua aplikatuz, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketa arloko laguntzetarako eta sarietarako eskabideetan eta gainerako izapideetan.

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira administrazio publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioak –publikotasuna, lehia, objektibotasuna, ezarritako helburuak betetzeko efikazia, baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia, gardentasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza–, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritakoaren arabera, eta bat etorritik Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren oinarriko manuekin (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatu zen legea) eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin; orobat, eskura dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideen arabera.

Beraz, oinarri hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan xedatutakoa,

eta azaldutako guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.—Agindu honen xedea da ikerketa kooperatiboko zentrozen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen jarduera ez-ekonomikoa finantzatzera bideratuta dauden 2026-2029 aldirako laguntzen oinarriak ezartzea eta deialdia egitea.

XEDAPEN GEHIGARRIA.— Aurretiaz izapidetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan aipatzen diren ondorioetarako, Agindu honetako laguntzak ebatziko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026. urteko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta behar adinakoa badago.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Berrikuntzako zuzendariari ahalmena eman zaio agindu hau garatu eta egikaritzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 18a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

I. ERANSKINA

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREAN IKERKETA
KOOPERATIBOKO ZENTROEN KATEGORIAN EGIAZTATUTA DAUDEN
ERAGILEENTZAKO LAGUNTZEN OINARRIAK (CIC PROGRAMA)

1. oinarria.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2026-2029 aldirako dirulaguntzen oinarriak ezartzea eta deialdia egitea, ikerketa kooperatiboko zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen jardura ez-ekonomikoa finantzatzeko (CIC programa).

2. oinarria.– Laguntzen finantzaketa.

Deialdi honetako dirulaguntza-programaren guztizko zenbatekoa, 2026 urteko aurrekontu-ekitaldia eta 2027, 2028, 2029 eta 2030erako konpromiso-kredituak kontuan hartuta, 80.000.000 euro da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura ordainduko da. Zenbatekoen banaketa:

2026	2027	2028	2029	2030	Guztira
15680000	19760000	20400000	20420000	4100000	80000000

3. oinarria.– Entitate onuradunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izango dituzte izaera juridiko propioa izan eta ikerketak kooperatiboko zentro gisa egiaztatuta dauden entitateek, betiere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean –ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautuan– integratuta badaude. Laguntza gauzatzeko aldi osoan zehar bete beharko dute baldintza hori.

2.– Entitate onuradunek, laguntza jasotzen duten aldian, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Ikerketa kooperatiboko zentro moduan onartuta egon behar dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean.

b) Entitateak ezin izango dira onuradun izan baldin eta dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zehapenen bat badute bide penaletik edo administratibotik, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne direla, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

c) Euskal Autonomia Erkidegoaren arlo publikokoak ez diren entitate onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, hala xedatzen baitu Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduak (otsailaren 17ko EHAA, 34. zk.). Organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du betebeharrak horiek egunean daudela, eta, horretarako, ez du onuradunen baimenik beharko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Dena dela, eskatzaileak berariaz erabili ahal izango du baimen horri aurka egiteko eskubidea. Hala eginez gero, beharrezko egiaztagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu eskaerarekin batera.

Baldintza hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

d) Ezin izango dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden entitateak.

e) Zuzendari zientifikoa izan beharko dute, entitate onuradunarekin lan- edo estatutu-harreman izango duena edo hari atxikita egongo dena; pertsona hori arduratuko da diruz lagundutako jardueren betearazpena zuzentzeaz.

f) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

4. oinarria.– Dirulaguntzaren helburua eta xede diren jarduerak.

1.– Diruz laguntzekoak izango dira ikerketa kooperatiboko zentrozen emaitzak eta gaitasunak hobetzen eta merkatura bideratzen laguntzen duten ikerketa-programak, I+G jardueraren balio-kate osoan lan eginda, eta arreta 2030erako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren espezializazio-eremuetan etorkizunerako ikuspegiarekin lanutako ezagutza berriak eskuratzean jarrita, eta, era berean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileen arteko lankidetzari bultzada emanda.

2.– Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira: diruz lagundutako jardueraren izaerari zalarrik gabe erantzuten diotenak eta 5. oinarrian ezarritako epean egiten direnak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetan, erosketa-kostua inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

3.– Laguntza hauei dagokienez, egindako gastutzat hartuko da betearazpen-aldian egin eta agindu honetan ezarritako gastuak egiaztatzeko aldia amaitu baino lehen ordaindu dena.

4.– Laguntzari honako hauek egotzi ahal izango zaizkio: langile-kostuak; ondasun inbentariagarriak lortu, eraiki, berregokitu, eta hobetzea –betiere ondasun horiek entitate onuradunaren ibilgetu izatera pasatzen badira–; alokairuak; material suntsigarria hornitzea; aholkularitza eta laguntza teknikoko lanak edo bestelako zerbitzuak kontratatzea; zientzia-jarduerak antolatzea; zientzialarien eta teknikarien dieta eta bidaiak, betiere otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak ezarritako mugen barruan (16/199 Dekretua, Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa), eta proposatutako jarduerak gauzatzearekin zuzenean lotuta dauden beste batzuk.

5.– Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta, zerbitzuon ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago aski erakunderik haiek egin, eman edo entregatzeko, edo salbu eta dirulaguntzaren aurretik egin bada gastua.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautapena (justifikazioan aurkeztuko dituzte horiek), efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraikiz egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko dute proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez dutenean.

6.– Ondasun inbentariagarriak lortu, eraiki, berregokitu eta hobetzeko, honako arau hauek beteko dira:

a) Onuradunak dirulaguntza eman den xede jakinera bideratuko ditu ondasunak, gutxienez bost urtez erregistro publikoetan inskriba daitezkeen ondasunak badira, eta gutxienez lau urtez gainerrako ondasunak direnean.

Erregistro publikoetan inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, eskrituran jaso beharko da zirkunstantzia hori, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta bi baldintzok dagokion erregistro publikoan inskribatu beharko dira.

b) Aurreko letran aipatutako helburuzko betebeharra ez betetzeak, zeina betiere gertatuko baita ondasunaren besterentzearekin edo kargarekin, dirua organo emaileari berreskuratu behar izatea ekarriko du berekin, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen III. tituluaren ezarritako eran. Ondorioz, dirua organo emaileari berreskuratzeari atxikita gertatuko da ondasuna, ondasun hori daukana edozein izanda ere, salbu eta erregistroko fede publikoak babesten duen hirugarren bat bada edukitzea hori edo justifikatzen bada ondasunak fede onez eta bidezko tituluz eskuratu direla edo, ondasun higitari inskribaezinen kasuan, merkataritza- edo industria-establezimendu batean eskuratu direla.

7.– Diruz laguntzekoak diren ekintzak azpikontratatu ahalko dira, diruz lagundutako zenbatekoaren % 20ko portzentajearen gehienez ere, betiere abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan artikuluan xedatutako betekizunak eta debekuak betez gero.

8.– Ez dira diruz lagunduko entitate onuradunak gastua eragin duen enpresa hornitzailearekin lotura badu, berariaz justifikatzen ez bada behintzat; justifikazio hori Berrikuntza Zuzendaritzak baloratu eta baimendu beharko du. Oinarri hauen ondorioetarako, ulertuko da bi entitatek edo enpresak lotura dutela, baldin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.8 artikulua adierazitako egoeraren batean badaude. Gainera, 20/2023 Legearen 31.7.d artikuluan ezarritakoa ere errespetatu beharko da.

9.– Diruz lagundu daitezkeen gastuei buruz artikulua honetan arautu ez den guztirako, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan adierazitakoa beteko da.

5. oinarria.– Laguntzen ezaugarriak eta mugak.

1.– Dirulaguntzak urte anitzetarako emango dira, itzuli beharrik gabekoak izango dira, eta, prozedurari dagokionez, lehiaketa ez den norgehiagokarako beste prozedura bati jarraituko zaio, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2.– Laguntza-deialdi honek diruz lagunduko du entitate onuradunek 2026, 2027, 2028 eta 2029ko ekitaldietan egiten dituzten jarduera ez-ekonomikoen kostu osoaren portzentaje bat, betiere jarduerari lotutako xedeen arabera; jarduera ez-ekonomikotzat ulertuko da Europako Batzordeak Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako estatu-laguntzei buruzko Esparruan ezarritakoa (2014/C 198/01).

Diruz laguntzeko gehiengo portzentajea % 70ekoa izango da, egiaztatutako IKZentzako.

3.– Dirulaguntzaren helburutik kanpo gelditzen da jarduera ekonomikoa. Jarduera ekonomikotzat jotzen dira hala industriarekin kontratuean burututako ikerketa, nola ikerketa-azpiegituren alokairua eta Europako Batzordearen arauetan –aurreko paragrafoetan jasotakoetan– exijitu eta jasotako baldintzei erantzuten ez dieten beste jarduera ekonomiko batzuk.

6. oinarria.– Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak eskuratzen dituzten entitate onuradunek beste laguntza batzuk ere jaso ahal izango dituzte, edozein delarik ere ematen dituen administrazioa edo entea –publikoa zein pribatua–. Dena den, onuradunak jasotzen dituen laguntza guztiak bilduta, ezin izango dute gainditu entitatearen jarduera ez-ekonomikoaren kostu osoaren % 100a, portzentaje horren barruan sartzen direlarik hirugarrenetatik jaso dituen bestelako laguntza edo diru-sarrerak.

2.– Onuradunak jasoko dituen laguntzen guztizkoa zenbat den jakin ondoren, agindu honetan ezarritakoaren ondorioz onuradun horrek jaso ahal izango dituen laguntzak zehazteko, kontuan hartuko dira Europar Batasunean horretarako indarrean dauden arauak, eta, zehazkiago, zer ezarri den Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzarako estatu-laguntzei buruzko Europar Batasunaren Esparruan.

3.– Eskuratutako dirulaguntzek aurreko apartatuan ezarritako muga gainditzen badute, gutxitu egingo da agindu honetan oinarrituta emandako laguntzen zenbatekoa, muga hori erdiesteko.

7. oinarria.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Eskaerak egiteko, formulario bat bete beharko da, zeina bide telematikoz eskuratu ahal izango baita Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egoitza elektronikoa, webgune honean: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1264401>

Eskabidea elektronikoki sinatzeko, entitate eskatzaileak entitate-txartela izan beharko du, eta, halakorik izan ezean, legezko ordezkariak alta hartu beharko du Eusko Jaurlaritzako ordezkarien erregistroan (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2023ko azaroaren 14ko Agindua).

Aplikaziora ziurtagiri elektronikoa bidez sartuko da (NAN elektronikoa, ONA txartela, FNM-Tren pertsona fisikoen ziurtagiria, BAK-q). Aplikaziora sartzen diren pertsonak baimena ematen diote Berrikuntza Zuzendaritzari (deialdia kudeatzen duen organoari) nortasun-datuak administrazio eskudunean egiazta ditzan bitarteko elektronikoen bidez edo eskuragarri dituen bestelako baliabideen bidez.

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio dirulaguntza kudeatuko duen organoari zuzenean egiazta ditzan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1.e artikuluan aurreikusita dauden inguruabarrak.

Dena dela, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimena. Hala eginez gero, beharrezko egiaztagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu eskaerarekin batera.

2.– Behin eskabidea osorik betetakoan, eta oinarri honetako 4. apartatuan zehaztutako dokumentuak erantsitakoan, entitateak edo legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, 1. apartatuan adierazitakoarekin bat etorriz; eta orduantxe geratuko da erregistraturik eskabidea.

3.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

4.– Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Garatu beharreko ekintza-plana (EP). 2022-2025 aldian egindako jardueren memoria eta zentroak egingo duen ikerketaren plangintza jaso beharko ditu, baita haren ildo guztiak eta honako hauek ere: ikerketa-taldeak, lortu beharreko xede eta adierazleak, emaitzen estimazioa, finantza-plana, azpiegituren eta ekipamenduaren deskribapena, ikertzaileen hautaketa- eta preskakuntza-politika eta berdintasun-plana, ongizate psikologikoko plana, nazioartekotzeko estrategia

eta transferentzia eta dibulgazio zientifikoko estrategia, eta plana osorik deskribatzeko behar diren kontzeptu guztiak. Ekintza-plana agindu honen II. eranskinaren arabera egingo da. Agiria ingelesez idatzi ahal izango da.

Ekintza-planak (EP) 2022-2025 eta 2026-2029 aldietarako adierazle-sorta bat ere jasoko du. 2026-2029 aldirako ezarritako adierazleek koherenteak izan beharko dute aurreko fasean zentroek erakutsitako ahalarekin; bestela, desadostasuna justifikatu egin beharko da. Agindu honen III. eranskinan, sartu beharreko adierazleen zerrenda agertzen da.

Finantza-planean (FP) jasoko dira 2022-2025 eta 2026-2029 aldietako urteko datu multzokatuak, pertsonal-gastuei, bestelako gastu arruntei eta inbertsioak buruzkoak, agindu honen IV. eranskinari jarraituz. Halaber, aldi horietarako sarrera-iturriak zehaztuko dira, honela sailkatuta: iturri publikoak eta pribatuak, eremu geografikoa eta entitate finantzatzailea. Gainera, modu esplizituan zehaztuko dira lokalak errentatzeko gastuak, halakorik izanez gero, eta instalazioetarako, laborategietarako, tresneria espezifikoetara eta abarretarako bideratutako zenbatekoak, laborategian zein laborategitik kanpo esperimendu bidez egindako ikerketekin zerikusia dutenak. Alderdiak aztertu beharko dira finantza-planean.

2026-2029 aldirako aurreikusitako gastuak justifikatu behar dira; horretarako, izango duten xede zehatzaren deskribapena eta gastu horiek finantzatzeko lortu ahalko diren finantzaketa-iturrien azterketa egingo da.

b) Diruz lagundu beharreko jarduera gauzatzeko epean beste entitate publiko edo pribatu batzuei jarduera ez-ekonomikorako eskatutako edo haiek horretarako emandako laguntzen adierazpena.

c) Organo eskudunak egiaztatuko du 3.2 oinarrian ezarritakoa betetzen dela.

8. oinarria.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

Baldin eta agindu honen 7.4 oinarrian eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, Berrikuntza Zuzendaritzak 10 eguneko epea emango die eskabide-sinatzaileei hutsak zuzen ditzaten edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko die ezen, agindutakoa bete ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Hala agintzen da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Zuzenketa-errekerimenduaren jakinarazpena, zuzendu beharreko eskabideak www.euskadi.eus egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz gauzatu da.

9. oinarria.– Ebaluazioa.

1.– Eskabideen ebaluazioak batik bat honako hauek izango ditu aztergai: zentroen bikaintasun zientifikoa, bikaintasunerako gobernua eta kudeaketa, sortutako jakintzak zernolako inpaktua izan duen, 2026-2029 aldirako proposatutako ekintza-plana eta zentroak nola lagundu dion Zientziaren Euskal Sistemari, Euskadi 2030 ZTBP planari, Ikerketaren Europako Espaziori (ERA) eta H2030 programari. Ebaluazio horrek oinarri gisa hartuko ditu Leidengo Manifestuan (The Leiden Manifesto for research metrics, Nature 2015) ezarritako printzipioak, eta produkzio zientifiko-teknikoaren ebaluazio-praktikak hobetzea sustatzen duten antzeko beste printzipio batzuk; horrela, aipatutako ebaluazioan modu arduratsuan erabiliko dira erreferentziazko iturriak eta ebaluazio-metrikak, bai kuantitatiboak (adibidez, adierazle bibliometriko normalizatuak), bai kualitatiboak.

2.– Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioak egingo ditu, entitate laguntzaile den aldetik, eskabideen ebaluazioa kudeatzeko lan materialak. Ikerbasque Fundazioaren Aholku Batzorde Zientifikoak balorazio zientifiko-teknikoari buruzko txosten bat egingo du eskabide bakoitzarentzat, oinarri honetan adierazitako irizpideei jarraituz. Batzorde horrek Zientziaren Euskal Sistematik kanpo dauden eta IKZ bakoitzaren zientzia-arloan nazioarteko ospea duten zientzialarien aholkularitza izan ahalko du txosten hori egiteko. Prozeduran zehar, informazio osagarria eskatu ahalko

zaie entitate eskatzaileei, balioztatzeko aurkeztutako agirien inguruko zalantzak argitzeko. Informazio hori aurrez aurreko elkarrizketa bidez aurkezteko eskatu ahal izango da, agirien inguruko zalantzak argitzeko soilik.

3.– Zehazki, ondoko irizpide-bloke hauek balioztatuko dira:

a) Gobernantza, bikaintasunerako kudeaketa eta Zientziaren Euskal Sistemari egindako ekarpena: zentroaren antolaketa, Euskadi 2030 ZTBPrekin bat egitea, kudeaketa ekonomikoa, zentroaren Nazioarteko Aholku Batzorde Zientifikoa (ISAC, International Scientific Advisory Committee) edo baliokidea zeinek osatzen duten.

b) Bikaintasun zientifikoa, ikerketa-kalitate frogatua eta sortutako jakintzaren inpaktu frogatua: ikerketa-programaren kalitatea eta argitalpen zientifikoak; ikertzaileak prestatzeko eta erakartzeko programa; zentroaren nazioarteko lidergoa; jakintzaren transferentzia eta dibulgazioa eta ikerketaren gizarte-inpaktua, jabetza intelektuala eta diru-sarrerak sortzea; startupak edo spin-offak sortzea; OTEBetan sortutako enplegu berriak eta OTEBetatik datorren fakturazioa; finantzaketa pribatua EAEn eta guztizko finantzaketa pribatua.

c) 2026-2029 aldirako ekintza-plana: antolaketa, helburu estrategikoak, garapen-programa, Euskadin eta nazioartean izandako inpaktua, talentua erakartzeko eta trebatzeko programa, finantzaketa-plana, transferentzia eta dibulgazio zientifikorako estrategia, berdintasun-plana eta ongizate psikologikoko plana.

4.– Puntuazioak.

	Irizpidea	Azpi-irizpidea
Gobernantza, bikaintasunerako kudeaketa eta Zientziaren Euskal Sistemari egindako ekarpena	15	
Zentroaren antolaketa: gobernantza, zuzendaritza zientifikoa, antolakuntza-egitura, ikerketa-taldeak, ikerketa-ildoak		6
Zentroaren kudeaketa ekonomikoa		3
Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planarekin bat egitea. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko eta pribatuekin lankidetzatza		3
ISAC International Scientific Advisory Committee erakundearen osaera. ISAC erakundeak zentroaren jarduerari buruz egindako balorazioa		3
Zentroaren bikaintasun zientifikoa eta ikerketaren kalitate frogatua, eta sortutako jakintzaren inpaktua	45	
Ikerketa-programaren kalitatea		5
Ikerketa-emaitzen kalitatea: ekarpen zientifikoak, ikerketako beste emaitza batzuk eta gizarte-inpaktua		8
Ikertzaileak prestatzea eta lanean hastea: bikaintasuneko ikertzaileak erakartzeko plana		5
Ikertzaileak prestatzea eta lanean hastea: ikertzaileak trebatzeko jardueren programa		5
Zentroaren nazioarteko lidergoa. Bere ikerketa-alorrean nazioarteko erreferentziazko zentro gisa ezaguna izatea. ERAn sartzea. Nazioarteko sektore publiko eta pribatuekiko lankidetzatza.		3
Nazioarteko ikerketa-sare eta -partzuergoetan integratzea		2
Jakintza gizartean zabaltzeko jarduerak		2
Gauzatutako berdintasun-jarduerak		2
Emaitzen ustiapen komertziala egingo da, batez ere, patenteak sortuta eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresak sortuta.		6
Spin-offak edo start-up ak sortzea edo horietan parte hartzea, eta lortutako emaitzak		7

2026-2029 aldirako proposatutako ekintza-plana	40	
Gobernantza, antolakuntza-egitura, ikerketa-taldeak: plan estrategiko berrira egokitzea. Zentroaren helburu estrategikoak aldi horretarako		4
Zentroa garatzeko programa, haren ildoak eta haien arteko koherentzia eta lotura		9
Talentu zientifikoa erakartzeko eta prestatzeko politika		6
Nazioartekotzeko plana, lidergora eta nazioarteko sare eta partzuergoak integratzera bideratuta		6
CIC programarentzat kanpo-finantzaketa lortzeko gaitasuna eta finantzaketa-plana		6
Transferentzia-estrategia		3
Jakintza gizartean zabaltzeko plana		2
Zentroaren berdintasun-plana		2
Zentroko ongizate psikologikoko plana		2

5.– Ebaluazio-prozesuaren ondorioz, honako kategoria hauen arabera sailkatuko dira zentroak:

(A+) Aparta, zentroa mundu osoan erreferentziatzeko erakundea da bere ikerketa-alorrean. A+ kategoria eman ahal izango zaio 95 puntu edo gehiago lortu dituen entitateari.

Kategoria hori lortzeko, Ikerbasqueren Aholku Batzorde Zientifikoaren iritziz nazioartean berezia den ekarpen zientifikoa egin beharko du entitateak. Gainera, entitateak gutxienez 4 puntu lortu beharko ditu, guzira, adierazle hauen ebaluazioaren puntuazioan:

2022tik eskabidea aurkeztu arte lortutako ERCak (Starting, Consolidator, Advancedo o Sinergy) edo EICak	Gehienez, 1 puntu
Bere espezialitateko lehen zentilean argitalpenak (C1) (Scopus) (2022-2024 aldian)	Gehienez, 1 puntu
Aipamenak (2023an*)	Gehienez, 1 puntu
Ikerbasque Professors (eskabideak aurkeztekoan aktibo daudenak)	Gehienez, 1 puntu
Nazioarteko argitalpen zientifikoetan lankidetzan egindako argitalpenak (2022-2024*)	Gehienez, 1 puntu

(*) Datuen baterakuntza kontuengatik, adierazleen amaierako data ezin da izan eskabidea aurkeztu zeneko data bera.

(A) Bikaina, emaitza bikainak ditu estatu-mailan, baina zentroaren nazioarteko bikaintasunari begira alderdi batzuk hobetu egin behar dira. Entitate horiek 90 puntu edo gehiago eta 100 puntu baino gutxiago dituzte.

(B) Ona, emaitza onak ditu estatu-mailan, baina hobetu egin behar du datozen urteetan nazioarteko erreferentzia-zentrotzat hartu ahal izateko. Entitate horiek 77 puntu edo gehiago eta 90 puntu baino gutxiago dituzte.

(C) Hobe daitekeena; zentroa berbideratu edo eraldatu egin behar da, gaur egungo egiturak edo duen garapenak ez baitu bermatzen etorkizunean zentro bikaintzat hartu ahal izango denik. 65 puntu edo gehiago eta 77 puntu baino gutxiago lortzen dituzten entitateak.

(D) Ez nahikoa, zentroa deialditik kanpo geratzen da. 65 puntu baino gutxiago lortzen dituzten entitateak.

A+	≥ 95 eta salbuespenezko betebeharrak
A	$90 \leq X < 100$
B	$77 \leq X < 90$
C	$65 \leq X < 77$
D	$0 \leq X < 65$

6.– Aholku Batzorde Zientifikoak, eskabidearekin batera bidalitako dokumentazioa ikusi ondoren, zentroaren esperimentaltasun-maila zehaztuko du; 0 eta 10 artekoa izango da maila. Ohiko jarduera zientifikoa garatzeko behar diren instalazio, laborategi eta tresneria espezifikoak izateko egiaztatutako beharren arabera zehaztuko da maila hori.

7.– Aholku Batzordeak, gainera, kalitate-adierazleen proposamen bat eta emaitzen ebaluazioa egingo ditu laguntza gauzatzeko aldiari, gaitasun zientifikoari, ekoizpen zientifikoari, prestakuntza-gaitasunari, langileak erakartzeari eta funtsak lortzeari dagokionez. Gainera, beste kalitate-adierazle mota batzuk sartu ahalko ditu bikaintasunari; laguntzei; sareei; jakintza transferitzeari eta dibulgazioari; funtsak erakartzeari; startupak eta spin-offak sortzeari, eta lizentziak eta patenteak erregistro eta ustiapenari dagokionez.

Hori zenbakiz zehazteko, entitateak datozen lau urteetarako diseinatutako jarduera-planean sartutako adierazleetatik eta aurreko urteetan erakutsitako ahaletik abiatuko da Aholku Batzordea. Entitate onuradunak proposatutako adierazleak dagoeneko erakutsitako ahal eta bilakaerarekin bat ez badatoz edo horien azpitik badaude, Aholku Batzordeak, hori finkatzeko, proposatutako adierazleen gaineko programa estrategikoetan entitateek egindako justifikazioa hartuko du aintzat. Gainera, horretarako, entitate bakoitzaren espezializazio-alorrean entzute handia eta ebaluazioak egiten eskarmentua duten ikertzaileei txostenak eskatu ahalko dizkie.

10. oinarria.– Esleitzeko prozedura.

Dirulaguntzen esleipena bi fasetan egingo da:

1.– Zentro bakoitzaren egiturazko finantzaketa zehaztea. Entitate onuradunen egiturazko finantzaketa honako lau osagai hauen batura izango da: errentamendu-gastuetarako modulua, azpiegitura handi berezien modulua, esperimentaltasun-modulua eta oinarriko gastuen modulua. Lehenengo hiruak eskabidean egiaztatutako finantzaketa-beharren arabera zehaztuko dira. Lau-garrena, berriz, zenbateko finkoa da entitate onuradun guztientzat.

Errentamendu-gastuen moduluari emateko zenbatekoa eraikinak eta lokalak errentan hartzeko egiaztatutako gastuen arabera zehaztuko da, eta zentroaren 2026-2029 aldirako errentamendu-gastu horien bilakaeraren justifikazioaren arabera. Errentamendu-moduluagatik dagokiona ordaintzea onartzeko, zentroaren errentamendu-koefizientea aplikatuko da, eta % 80 baino handia izan beharko du. Kalkulatzeko, zentroak errentan duen azaleraren eta guztira jabetzan, erabileraren eskubidean edo usufuktuan duen azaleraren arteko erlazioari erreparatuko zaio, m²-tan neurtuta. Justifikatutako errentamendu-gastuen % 80 finantzatuko da gehienez, eta urteko 250.000 euro arte.

Azpiegitura berezi handiei laguntzeko moduluan eman beharreko zenbatekoa azpiegitura horien kudeaketan espezializatutako ikertzaileen gastuen arabera kalkulatu da. Azpiegitura berezi handitzat hartuko dira hiru betekizun hauek betetzen dituztenak:

a) Erosketa-kostua 1,5 M euro-tik gorakoa izatea.

b) EAEn bakarria izatea.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko beste zentro batzuetako ikertzaileen-tzako ere irekia egotea.

Modulu honetan, gehienez ere 200.000 euro finantzatu dira urtean.

Esperimentaltasun-moduluari emateko zenbatekoa Aholku Batzorde Zientifikoak entitate bakoitzari esleitutako esperimentaltasun-mailaren arabera zehaztuko da, eta urteko 200.000 euro arte.

Oinarrizko gastuen moduluan 400.000 euro emango dira urtean entitate guztientzat. Laburbil-duz, kontzeptu horietarako laguntzaren zenbatekoak honako hauek izango dira:

Errentamendu-gastuen modulua	250.000 euro urtean, gehienez
ZTBESren zerbitzurako azpiegitura berezi handiei laguntzeko modulua	200.000 euro urtean, gehienez
Esperimentaltasun-modulua	200.000 euro urtean, gehienez
Oinarrizko gastuen modulua	400.000 euro urtean

C kategorian ebaluatutako zentroyen kasuan, oinarrizko gastuen modulua bakarrik aplikatuko da, eta, beraz, zentro horiek urtean 400.000 euroko egiturazko finantzaketa bakarrik izango dute.

2.– Bikaintasunagatiko finantzaketa zehaztea.

A+ gisa ebaluatutako entitateek gehienez 700.000 euro jasoko dituzte urtean bikaintasunagatiko finantzaketa gisa. Modulu horren zuzkidura 5 milioi eurokoa izango da, kategoria horretan sartutako entitateen artean bati berdinetan banatu beharrekoa, aipatu urteko muga dutela.

Esleitzeko geratzen diren zenbatekoak ebaluazioan 77 puntu gainditzen dituzten entitateetako bakoitzak lortutako bikaintasun-puntuoen arabera esleituko dira. Lortutako notari 77 puntu kenduta lortzen dira bikaintasun-puntuak.

C kategorian ebaluatutako zentroek ez dute jasoko bikaintasunagatiko finantzaketarik.

3.– Onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntzak ezingo du gainditi 5. oinarriko 2. apartatuan adierazitako jarduera ez-ekonomikoaren kostuaren portzentajea, ez eta eskatutako zenbatekoa ere. Horietako kasuren bat gertatzen bada, 77 puntu baino gehiagoko puntuazioa duten gainerako entitateen artean banatuko da soberakina.

11. oinarria.– Hautaketa-batzordea.

1.– Entitate laguntzailearen ebaluazioaren emaitzak Hautaketa Batzordeari helaraziko zaizkio, eta hari egokituko zaio eskabideen azken balorazioa egitea eta, ondoren, ebaluazioaren emaitza zehazten duen txosten bat egitea.

2.– Hautaketa Batzordea osatuko dute Berrikuntzako zuzendariak (batzordeburua izango da), Zientzia Politikako zuzendariak eta Zientzia eta Berrikuntzako Sailburuordetzako teknikari batek (idazkaria izango da).

3.– Hautaketa-batzordearen zeregina izango da deialdiaren oinarriak zuzen aplikatzen direla aztertzea.

4.– Organo ebazleari dagokio baliabideak esleitzea, agindu honen 10. oinarrian adierazitakoaren arabera, organo kudeatzaileak proposatuta.

5.– Hautaketa-batzordeak, gainera, Ikerbasque Fundazioaren Aholku Batzordeak laguntza gauzatzeko aldiari proposatutako kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa baieztatuko ditu.

12. oinarria.– Ebazpen-proposamena.

1.– Berrikuntzako zuzendariak deialdia ebazteko proposamena prestatuko du.

2.– Proposamena dirulaguntza ematearen aldekoa bada, hau dena adierazi beharko da bertan: entitate onuradunaren identifikazioa, gauzatzeko epea, guztira zenbat esleitu zaion eta urte bakoitzean zenbat emango zaion, kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa.

3.– Proposamena kontrakoa bada, identifikatu behar da zein entitatek eskatzen duen dirulaguntza eta zergatik ukatzen zaion laguntza.

13. oinarria.– Ebazpena.

1.– Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeari dagokio laguntzak esleitzeko ebazpena ematea.

2.– Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen esanbidezko ebazpen bakarraren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, organo kudeatzaileak egindako ebazpen-proposamena aintzat hartuta. Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da, eta honako hauek jasoko ditu: entitatearen identifikazioa, gauzatzeko epea, guztira zenbat esleitu zaion eta urte bakoitzean zenbat emango zaion, kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa; bai eta ukatutako eskaerei dagokienez, horretarako arrazoiak. Ebazpena Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egoitza elektronikoko taula elektronikoa argitaratuko da, helbide elektronikoa honetan: www.euskadi.eus/servicios/1264401

3.– Agindu hau EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da ebazpena, beranduenez. Adierazitako epe horretan ebazpena jakinarazten ez bada, eskabideak ez direla onartu ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

4.– Emandako laguntzak egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz egingo da jakinarazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>. Era berean, jakinarazpen elektronikoko bat igorriko da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta>), eta ziurtagiri elektronikoa sartu beharko da bertara. Horrez gain, publikotasun-ondorioetarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko da, adierazteko nortzuk diren onuradunak eta zenbateko dirulaguntza ematen zaien, kalitate-adierazleekin eta emaitzen ebaluazioarekin batera, iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo sei hilabeteetan.

5.– Hargatik eragotzi gabe aurreko 4. apartatuan ezarritakoa, Berrikuntza Zuzendaritzak argitalpenen berri bidali ahal izango die interesdunei, SMS edo posta elektronikoa bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere egindako jakinarazpenaren ondorioz izango.

6.– Ebazpen horren aurka, interesdunek Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote informatika-aplikazioaren bidez; horretarako, hilabeteko epea izango dute, ebazpen hau www.euskadi.eus helbideko egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

14. oinarria.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Laguntzak urtero ordainduko dira, zatika. Urtearen lehen hiruhilekoan urte horretan dagoenaren % 80ko aurrerakina emango zaie, eta hurrengo urtean, gainerako % 20a likidatuko da. Honela:

2026	2027	2028	2029
19.600.000,00	19.800.000,00	20.100.000,00	20.500.000,00

2.– Ordainketak 16. oinarrian adierazitako kontrolen eta 15. oinarrian jasotako justifikazioa behar bezala aurkeztearen mende geratzen dira.

3.– Dirulaguntzak ez dira ordainduko entitate onuradunak ez badu egiaztatzen zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela; ez da ordainduko, halaber, dirua itzuli behar duela dioen ebazpen baten ondorioz zorduna bada.

4.– Dirulaguntzaren zenbatekoa Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 17. artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-araubidearen arabera bematuko da (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura emango diren dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena).

15. oinarria.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Entitate onuradunak urtero aurkeztuko ditu laguntza gauzatu izanaren jarraipena egiteko agiri hauek:

a) Auditoretza-txosten bat, entitate onuradunaren egoera finantzarioari buruzkoa. Auditoreak alta emanda egon behar du Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean; Kontabilitateko eta Kontu Ikuskaritzako Institutuaren mende dago erregistro hori. Txosten hori egiteak sortutako gastua diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da.

b) Txosten ekonomiko laburtua, entitate onuradunaren jarduera ez-ekonomikoaren zenbatekoari buruzko kontu-auditorearen ziurtagiria jasotzen duena. Ordainketa-egiaztagiria erantsi beharko dira.

c) Ziurtagiri bat, entitate onuradunaren legezko ordezkariak egina, entitateak ekitaldi horretan beste entitate publiko edo pribatuetatik deialdiaren helburu bererako jasotako laguntza guztiei buruzkoa.

2.– Entitate onuradunak, aurreko apartatuan adierazitako dokumentuekin batera, bi urtean behin (2028 eta 2030), laguntzaren jarraipenerako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

a) 13.2 oinarrian ezarritako xedeen lortze-mailaren txostena.

b) Laguntza eman zenetik egindako jardueri buruzko txostena.

3.– Oinarri honen 1. apartatuan aipatutako justifikazio-agiriak 2027, 2028, 2029 eta 2030eko ekitaldietako lehenengo seihilekoan aurkeztu beharko dira. 15.2 oinarriko egiaztagiria 2028ko eta 2030eko urtarrilaren 31 baino lehen entregatuko dira.

4.– Artikulu honetan aipatzen diren agiriak bide telematikoz aurkeztuko dira, agindu honen 7.1 oinarrian zehazten den helbide elektronikoan.

5.– Entitate onuradunak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute, eta fakturak eta laguntzaren xede izan diren gastuak egiaztatzeko gainerako agiriak gorde beharko dituzte gutxienez bost urtez, justifikazio-epea amaitzen denetik aurrera.

16. oinarria.– Jarraipena eta kontrola.

1.– 2026-2027 biurtekoak.

15.2 oinarrian 2026 eta 2027 urteetarako zehaztutako agiriak 2028ko lehen hiruhilekoan ebaluatuko dira. Ebaluazio horretan, 13.2 oinarrian ezarritakoaren arabera lehen biurtekoan bere gain

hartutako konpromisoei dagokienez erdietsitako zientzia-, kudeaketa- eta lankidetzalorpenak aztertuko dira.

Ikerbasque Fundazioko Aholku Batzorde Zientifikoa arduratuko da ebaluazioaz, eta amaieran jarraipen zientifiko eta teknikoko txosten indibiduala egingo du. Ebaluazioaren emaitza 2028ko martxoaren 31 baino lehen jakinarazi beharko da. Emaitza ezezkoa bada, ekintza-plan zuzentzaile espezifiko bat eskatuko zaio entitateari, txostena jakinarazi eta hamabost eguneko epean, eta aholku-batzordeak ez badio oniritzia ematen, galdu egingo du 2026-2027 biurtekorako emandako laguntza.

2.– Laguntza egikaritzeko aldiaren amaiera.

Laguntza egikaritzeko bigarren biurtekoa amaitu ondoren, arestian azaldu den ebaluazio-prozedura errepikatuko da laguntza egikaritzeko aldi osoari dagokionez (2026-2029). Emaitza ezezkoa bada, ulertuko da ez-betetzea egon dela, eta agindu honen 20. oinarrian xedatutakoaren arabera jokatu da.

17. oinarria.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan ezarritako dirulaguntzen entitate onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekeo abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan araututako betebeharrak bete beharko dituzte, eta, zehazki, honako hauek:

a) Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea, nahiz eta Berrikuntza Zuzendaritzak onartu ahal izango dituen jarduera horiek burutzerakoan sor litezkeen aldaketak, betiere aldaketa horiek guztiz justifikatzen badira, eta Berrikuntza Zuzendaritzaren berariazko baimena lortu bada, agindu honetan ezarritakoaren arabera.

b) Kostu-kontrolari eustea, entitateak burutzen duen jarduera ekonomikoa eta ez-ekonomikoa bereiziko dituen.

c) Berrikuntza Zuzendaritzari laguntzea, esleitutako dirulaguntzen inguruan hark egokitzen jotzen duen guztia egiaztatzekeo. Eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute entitate onuradunek.

d) Behin betiko fakturak artxibatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esku jartzea, hamar urtez gutxienez.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –dirulaguntzen gaineko fiskalizazio-egitekoak dituztenez– eskatzen duten informazio guztia ematea Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekeo abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 42. artikuluan ezarritako eran.

f) Beste edozein administrazio, entitate publiko edo pribatuk helburu bererako edo antzekorako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo eskuratuz gero, horren berri ematea Berrikuntza Zuzendaritzari.

g) Agindu honetan aurreikusitako laguntzekin burutu diren jardueren finantzaketaren izaera publikoari publikotasun egokia ematea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekeo abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan xedatuaren arabera.

h) Zuzendari zientifikoak kargua utziz gero, Berrikuntza Zuzendaritzari jakinaraztea kargu hori nola beteko den.

18. oinarria.– Organo kudeatzailea.

Berrikuntza Zuzendaritza da laguntza horien organo kudeatzailea.

19. oinarria.– Entitate laguntzailea.

1.– Agindu honetan jasotako araudiaren arabera ematen diren dirulaguntzak kudeatzeko, Ikerbasque Fundazioa entitate laguntzaile izendatzen da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 12. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dira.

Era berean, ezingo dira entitate laguntzaile izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan aipatutako debeku-egoeraren batean dauden entitateak.

2.– Lankidetz-esparrua aipatutako legearen 12.6 eta 12.7 artikuluetan ezarritakoaren arabera formalizatuko da, dagokion lankidetz-hitzarmenean.

3.– Ikerbasque Fundazioak, entitate laguntzaile gisa, honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Proposamenak aztertu eta ebaluatzeko kudeaketa-lanak.

b) Jarraipen-prozesuak definitu eta inplementatzeko proposamena.

c) Lortutako emaitzen erdibideko eta amaierako ebaluazioa kudeatzea.

4.– Berrikuntza Zuzendaritzak eskatuta, Ikerbasque Fundazioak programa ondo kudeatzeko beharrezko den beste edozein jarduketetan lagunduko du, eta hori dela-eta zuzendaritza horrek egin ditzakeen egiaztapen-jarduketak onartuko ditu.

20. oinarria.– Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

1.– Ondoren zehazten diren kasuetan, entitate onuradunek ezingo dute laguntza ordain dakien eskatu, eta aurretik zerbait ordaindu bazaie, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzularaztea, berandutze-interes eta guzti, honako kasu hauetan:

a) Eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo laguntza lortzea eragotziko zuketenen baldintzak ezkutatuz lortu badute dirulaguntza.

b) Dirulaguntza emateko oinarrizkoak diren xedeak, jarduera edo proiektua bete ez bada edo eskatzen den portaera izan ez bada. Horri dagokionez, ez-betetzea gertatu dela ebatziko da aginduaren 16.3 oinarrian aipatutako azken ebaluazio-prozedura gauzatu eta gero.

c) Gastuak justifikatzeko eginbeharra betetzen ez bada. Finantza daitekeen inbertsioa egin dela justifikatzeko behar diren agiriak ez badira aurkezten organo emaileak eskaera egin eta 15 egun balioduneko epean, jasotako zenbateko ez justifikatuak itzuli egin beharko dira. Dirua itzuli beharko da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritako eran berreskuratzeko prozedura izapidetu ondoren.

d) Emandako zenbatekoaren % 25 baino gutxiago erabili bada.

2.– Ez-betetze partzialtzat hartuko da emandako laguntzaren erabilpen osoa ez egitea, % 25 baino gehiagokoa bada. Kasu horretan, laguntza emateko ebazpena aldatu egingo da, betiere laguntzen onuradun izateko agindu honen 3. oinarrian ezarritako gutxieneko baldintzak eta laguntzen xedeari dagokionez 4. oinarrian ezarritakoa betetzen badira.

3.– Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

21. oinarria.– Laguntzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira edota beste edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatutatik dirulaguntza gehiago lortzen bada edota bestelako diru-sarrerarik balego helburu bera lortzeko, dirulaguntza emateko ebazpena alda daiteke; betiere, onuradun izateko agindu honen 3. oinarrian ezarritako gutxieneko baldintzak eta laguntzen xedeari dagokionez 4. oinarrian ezarritakoa betetzen badira.

2.– Era berean eta salbuespen gisa, entitate onuradunak hala eskatzen badu eta behar bezala justifikatzen badu, posible izango da laguntzak eman zituen administrazio-organoak jarduketak egiteko epea luzatzea.

3.– Berrikuntza Zuzendaritzak aldaketak onar ditzake jardueretan, betiere aldez aurretik aldaketak egitea eskatzen badu entitate onuradunak eta amaitu aurretik guztiz justifikatzen baditu, eta ez baditu desitxuratzen lortu nahi diren izaera eta xedeak, eta jakina, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan ezarritako eskakizunak errespetatzen badira.

22. oinarria.– Datuen babesia.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa-sustatzeko). Informazio hau emango da:

Arduraduna: Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Berrikuntza Zuzendaritza.

Xedea: Oinarri zientifikoa duen berrikuntza finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzean egindako misioa betetzeko edo interes publikoaren alde egindako misioa betetzeko beharrezkoa den tratamendua.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: Eskatzaileak eskubidea du datuak eskura izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea dago gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-capa2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

II. ERANSKINA

ESKABIDE-INPRIMAKIA

ESKAERA-INPRIMAKIA	ERREFERENTZIA	CIC_2026_1_(.)
	BARNE-KODEA	
Ikerketa Kooperatiboko Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileentzako laguntzak CIC programa 2026-2029.		

A) ENTITATE ESKATZAILEA	
Sozietatearen izena	
IFK	
Helbidea	PK:
Telefonoa	
Helbide elektronikoa	

B) LEGEZKO ORDEZKARIA			
Abizenak, izena			
NAN			
Sexua		Gizonezkoa	Emakumezkoa
Helbide elektronikoa			
1. telefonoa		2. telefonoa	

<input type="checkbox"/> 2022-2025 deialdian, «Bikaintasun zientifikoa eta zentroaren ikerketa-kalitate frogatua» atalean lortutako puntuazioari eutsi nahi diot.

Sinatzaileak, entitate eskatzailearen legezko ordezkari den aldetik, eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko azaroaren 18ko Agindua kontuan izanda (Agindu horren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira ikerketa kooperatiboko zentroen –IFZ– kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileei laguntzak emateko eta deialdia egiten baita (CIC programa).

ESKATZEN DU:

Eman dakiola CIC 2026-2029 programako laguntza bat, eskabide honi erantsita doan dokumentazioan jasotako datuen arabera, eta adierazten du entitateak betetzen dituela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak, eta ez dituela urratzen CIC laguntza-programari dagokionez aipatzen diren gainerako legezko debekuak:

1.– Ez du eskatu helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik ezein administrazio edo ente publiko nahiz pribatutan. Baietz erantzunez gero, emate-agiriaren kopia erantsi behar da.

2.– Ez du helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu ditu ezein administrazio edo ente publiko edo pribatutatik.

3.– Onuradun izateko baldintza guztiak betetzen ditu.

4.– Konpromisoa hartzen du Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Berrikuntza Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen den baldintzaren bati eragiten dion egoera-aldaketa oro, bai eta edozein administrazioen edo ente publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

5.– Ez du dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdu epai irmo bidez, eta ez dute kondenatu delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

6.– Ez du egin borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaerarik, ez dute ezein prozeduratan kaudimengabetzat jo, ez dago konkurtsoan deklaraturik, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez dago esku-hartze judizialaren pean, eta ez du desgaitasun-zigorrik jaso Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitasun-aldia amaitu gabe.

7.– Ez du eragin Administrazioarekin egindako kontratu baten suntsiarazpen irmorik, kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik.

8.– Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak ez daude egoera hauetako bakar batean: Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean; Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

9.– Egunean du dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

10.– Ez du dirulaguntzak jasotzea galarazten duen zehapen-ebazpen irmorik, betiere bat etorri hala xedatzen duen edozein legerekin. Zehazki, ez du administrazio- edo zigor-zehapenik, sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako aldia amaitu gabe.

11.– Betetzen du Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, bai eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.

12.– Ez du LGTBI-fobia egin, bultzatu edo sustatu, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

13.– Ez du zehapenik Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

14.– Desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota bete gabe ez izatea, eta hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla ez egiaztatzea.

15.– Ez du egin enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikulua arabera.

16.– Betetzen ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, legez ezarritakoaren arabera. (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluen kasuan; agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

17.– Ez du gainfinantzaketarik.

Baldintzak betetzeari eta emandako datuen zehaztasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak.

1.– Indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen ditu.

2.– Eskabide honetan jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Erakundearen legezko ordezkaria

NAN _____ Abizenak, izena _____

Deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko, betiere Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz. Halaber, datuak fitxategi hauetako batean sartuko dira, 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututakoaren arabera (2010eko azaroaren 5eko EHAA). Fitxategion helburua dirulaguntzen deialdia kudeatzea eta deialdian lehiatzen direnei prozesuaren bilakaeraren berri ematea da.

a) «Bekadunentzako laguntzak» fitxategia. Honako deialdi hauetako datuak biltzen ditu: Doktoratu aurreko eta doktoratu osteko laguntzak, Basque Visiting Fellow eta doktoratu aurreko egonaldietarako laguntzak.

b) «Ikerketa» fitxategia. Honako deialdi hauetako datuak biltzen ditu: Ikertzaileen Mugikortasunerako Laguntzak; Kongresuak Antolatzea; Oinarrizko Ikerketako eta Ikerketa Aplikatuako Proiektuak; Unibertsitate-Enpresa Proiektuak; Ekipamendu Zientifikoa; CIC programa; Euskal Unibertsitate Sistemako Ikertaldean Jarduerak Sustatzeko Laguntzak, eta Ikerkuntzako Euskadi Saria.

Berrikuntza Zuzendaritza da fitxategi horien organo arduraduna. Berrikuntza Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Berrikuntza Zuzendaritzara jo behar da (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

III. ERANSKINA

EKINTZA-PLANA (ESKEMA)

1.– Zentroa: Gobernantza, azpiegiturak, bikaintasunerako kudeaketa eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemari egindako ekarpena.

1.1.– Deskribapen orokorra, zentroaren espezializazio-arloa eta zentroaren helburu estrategikoak.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Zentroa sortzeko eta garatzeko arrazoia. Zentroaren misioa eta ikuspegia. Epe ertain eta luzera begirako estrategien eta jarduketa-eremuen definizioa, baita CICen ebaluazio-taldeak 2022-2025 deialdian nahiz tarteko ebaluazioan egindako gomendioen betetze-maila ere.

1.2.– Gobernantza eta bikaintasunerako kudeaketa.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 4 orrialde):

Entitatearen, elkartutako pertsonen/erakundeen eta horien eta zentroaren arteko akordioen legezko deskribapena. Zentroaren antolakuntza. Barneko ebaluazioa eta kalitate-kontrola egiteko sistemak edo prozedurak.

1.3.– Azpiegiturak eta ekipamendua.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Herrialdearen eta zentroaren xede estrategikoak lortzeko behar diren egungo eta etorkizuneko azpiegituren zehaztasunak. Ekipamendu-beharren eta -egokitasunaren justifikazio zehatza. Aginduaren 10.1 oinarrian zehaztutako baldintzak betetzen dituzten azpiegitura berezi handien kasuan, azpiegitura handiaren kudeaketan parte hartzen duten ikertzaileen justifikazioa eta urteko kostua sartu beharko dira.

1.4.– Finantza-plana: kuantifikazioa eta justifikazio ekonomikoa.

1.4.1.– Gastuak.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

2022-2025 aldian egindako gastuei buruzko informazioa. Gastu guztiak justifikatu egin behar dira, gastu horiek izan duten helmuga zehatzaren deskribapen zehatua eginez.

1.4.2.– Sarrerak – finantzaketa.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

2022-2025 aldirako lortutako finantzaketa-iturriei buruzko zehaztasunak adierazi behar dira.

1.4.3.– Errentamendu-gastuak.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Entitatearen lokalen 2022-2025 aldiko errentamendu-gastuak zehaztu behar dira. Erantsi gastuen egiaztagirak (fakturak) eta egoki irizitako iruzkinak eta informazio osagarria.

1.4.4.– Zentroaren esperimentaltasun-maila.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Esperimentu bidez egindako ikerketak direla-eta ekipamendurako, erreaktiboetarako, tresna espezifikoetarako eta antzekoetarako erabilitako zenbatekoak zehaztu behar dira, 2022-2025 aldirako.

1.5.– Zentroaren etorkizuneko garapena.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

2029tik aurrera zentroak izan dezakeen bilakaeraren aurreikuspena.

1.6.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemari egindako ekarpena eta hartan integratzea.

1.6.1.– Euskadiko politika zientifikoarekin bat etortzea.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Euskadiko politika zientifikoarekiko eta Euskadi 2030 ZTBPrekiko bat-egitearen mailaren deskribapena. Zentroan garatutako ikerketak Euskadin duen eragina.

1.6.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko entitateekin lankidetzan aritzea.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Deskribatu Euskal Autonomia Erkidegoko beste entitate publiko edo pribatuekin onartutako lankidetzak-esparruak eta akordioak.

1.7.– Nazioarteko Aholku Batzorde Zientifikoaren (International Scientific Advisory Committee – ISAC–) edo horren baliokidearen osaera eta zeregina.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

ISACren (edo baliokidearen) osaeraren, zereginaren eta jardueren deskribapena, baita zentroa hobetzeko egindako gomendioen ebaluazioari, jarraipenari eta betetze-probari buruzko informazioa ere. Sartu eranskin gisa ISACen 2022-2025 aldiko txostenen aktak.

2.– Bikaintasun zientifikoa eta ikerketa-kalitatea, eta sortutako jakintzaren inpaktuak; 2022-2025 aldirako egindako jarduerak eta lorpen nagusiak.

2.1.– Ikerketa-programak.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 7 orrialde):

Xede nagusiak eta horiek lortzeko garatu diren ikerketa-jarduerak, proiektuak eta lerroak. Lortutako emaitzak: argitalpenak, patenteak, lizentziak... Garatutako ikerketa-programen gizarte-eragina.

2.2.– Ikerketa-lantaldea.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Zentroaren ikerketa-egituraren edo antolakuntzaren definizioa. Talentu ikertzaileak erakarri eta atxikitzeko estrategiak eta jarduerak.

2.3.– Nazioartekotze-estrategia.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Zentroaren nazioartekotzea sustatzen duten Europako eta atzerriko entitateekin erdietsitako akordioak eta lankidetzak-esparruak. Europa- edo nazioarte-mailan zentroak koordinatu edo parte hartzen dueneko proiektuak/sareak zehaztu. Honako lankidetzak-lan hauen emaitza zientifikoak zehaztu: argitalpenak, patenteak, lizentziak... Zentroan dauden ikertzaile bisitariak eta zentroko ikertzaileek atzerrian egindako egonaldia. Zentroak garatutako jardueretan duen zeregina eta/edo lidergoa zehaztu.

2.4.– Ikertzaileen prestakuntza.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez orrialde bat):

Ikertzaileen eta laguntzaileen prestakuntza-jarduerak euren ibilbide profesionalaren zehar, talentua eta langileak hartzeko eta atxikitzeko eta haien ahalmenak sendotzeko diseinatuak izan direnak.

2.5.– Berdintasun-plana.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Zentroan genero-berdintasuna sustatzeko hartuko diren neurriak zehaztu, horien artean sartuta antolatutako edo parte hartzea espero deneko jarduerak.

2.6.– Ikerketaren emaitzen transferentzia.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Egindako zaintza teknologikoko jarduerak eta jakintza transferitzeko jarduerak. Zientzia-komunitatearekin komunikatzeko eta haiengana zabalkunde zientifikoa helarazteko egin diren jarduerak guztiak eta abian jarritako neurriak sartu.

2.7.– Jakintzaren gizarte-hedapenaren egungo egoera.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Jakintza gizartean zabaltzeko burutu diren jarduerak eta ezarri diren neurriak.

2.8.– Sortutako jakintzaren inpaktua.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 4 orrialde):

Emaitzen ustiapen komertziala, batez ere patenteak sortuz eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresak sortuz, startup-ak eta spin-offak sortuz edo haietan parte hartuz eta lortutako emaitzak.

2.9.– Beste jarduerak batzuk.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Zentroa ebaluatzeko aintzat hartu behar den 2022-2025 aldian egindako beste edozein jarduerak sartu.

3.– 2026-2029 aldirako ekintza-plana.

3.1.– Ikerketa-programak.

Atal horrek honakoak hartzen ditu (gehienez 7 orrialde):

Xede nagusiak eta horiek lortzeko garatu diren ikerketa-jarduerak, proiektuak eta lerroak. Aurreikusitako emaitzak: argitalpenak, patenteak... Garatuko diren ikerketa-programen gizarte-inpaktua.

3.2.– Ikerketa-lantaldea.

Atal horrek honakoak hartzen ditu (gehienez 3 orrialde):

Zentroaren ikerketa-egituraren edo antolakuntzaren definizioa. Talentu ikertzaileak erakarri eta atxikitzeke estrategiak eta jarduerak. Plantillak izan dezakeen bilakaera, zentroaren xede estrategikoak lortzeari begira.

3.3.– Nazioartekotze-estrategia.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Zentroaren nazioartekotzea sustatzen duten Europako eta atzerriko entitateekin erdietsitako akordioak eta lankidetzak-esparruak. Europa- edo nazioarte-mailan zentroak koordinatu edo parte hartzen dueneko proiektuak/sareak zehaztu. Honako lankidetzak-lan hauen emaitza zientifikoak zehaztu: argitalpenak, patenteak, lizentziak... Zentroan dauden ikertzaile bisitariak eta zentroko ikertzaileek atzerrian egindako egonaldiak. Zentroak proposatutako jardueretan duen zeregina eta/edo lidergoa zehaztu.

3.4.– Ikertzaileen prestakuntza.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez orrialde bat):

Ikertzaileen eta laguntzaileen prestakuntza-jarduerak euren ibilbide profesionalaren zehar, talentua eta langileak hartzeko eta atxikitzeke eta haien ahalmenak sendotzeko diseinatuak izan direnak.

3.5.– Berdintasun-plana.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Zentroko langileen zerrenda sartu, generoaren eta kategoriaren arabera sailkatuta. Zentroan genero-berdintasuna sustatzeko hartuko diren neurriak zehaztu, horien artean sartuta antolatutako edo parte hartzea espero deneko jarduerak.

3.6.– Transferentzia-estrategia.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 5 orrialde):

Egin beharreko zaintza teknologikoko jarduerak eta jakintza transferitzeko jarduerak. Patenteak sortzea, oinarri zientifiko-teknologikoko enpresak sortzea, startupak eta spin-offak sortzea edo horietan parte hartzea.

Era berean, zientzia-komunitatearekin komunikatzeko eta jakintza zientifikoa haiei helarazteko egin diren jarduerak guztiak eta abian jarritako neurriak sartu.

3.7.– Jakintzaren gizarte-hedapenaren plana.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Jakintza gizartean zabaltzeko burutu diren jarduerak eta abian jarri diren neurriak. Garatuko diren ekintzak zehaztu.

3.8.– Zentroko ongizate psikologikoko plana.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Sartu zentroko langileen ongizate psikologikoa bermatzeko abian jarri nahi diren neurri eta ekintza guztiak.

3.9.– Beste jarduera batzuk.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Zentroa ebaluatzeko aintzat hartu behar den 2026-2029 aldian egingo den beste edozein jarduera sartu.

3.10.– Jardueren kronograma.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

Plan estrategikoa garatzeko eta gainerako jardueretarako kronograma.

3.11.– Finantza-plana: aurrekontua eta justifikazio ekonomikoa.

3.11.1.– Aurrekontua.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Sartu 2026-2029 aldian egitea aurreikusten den gastuei buruzko informazioa. Gastuak justifikatzeko, izango duten xede espezifikoaren deskribapena eta gastu horiek ordaintzeko lortzea aurreikusten den finantzaketa-iturrien azalpena egin beharko da.

3.11.2.– Sarrerak – finantzaketa.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Halaber, 2026-2029 aldirako aurreikusitako finantzaketa-iturriei buruzko zehaztasunak sartuko dira.

3.11.3.– Errentamendu-gastuak.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 2 orrialde):

2026-2029 aldirako aurreikusitako erakundearen lokalen errentamendu-gastuak adierazi, baita aldi horretan errentamendu-gastu horietarako aurreikusitako bilakaeraren justifikazioa ere. Erantsi gastuen egiaztagiria (fakturak) eta egoki irizitako iruzkinak eta informazio osagarria.

3.11.4.– Zentroaren esperimentaltasun-maila.

Atal horretan honakoak sartu behar dira (gehienez 3 orrialde):

Zehaztu, 2026-2029 aldirako, esperimentu bidez egindako ikerketak direla-eta ekipamendurako, erreaktiboetarako, tresna espezifikoetarako eta antzekoetarako aurreikusitako zenbatekoak.

4.– Adierazleak.

Atal honetan sartuta daude III. eranskinean jasotako adierazle nagusiak.

5.– Eranskinak.

Sartu zentroa ebaluatzeko prozesurako ustez beharrezkoak diren eranskinak.

Sartu, halaber, ISAC edo baliokidearen ebaluazio-txostenak, 2022-2025 aldikoak.

IV. ERANSKINA

ADIERAZLEAK

EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN ADIERAZLEAK

Indexatutako aldizkarietako artikulak eta berrikuspenak.

- Zenbakia.
- Lehen kuartilaren %.
- Lehen dezilaren %.
- Lehen zentilaren %.
- Zuzendari zientifikoak argitaratutakoen %.

Aipamenen kopurua, guztira.

Nazioarteko argitalpen zientifikoetan lankidetzan egindako argitalpenak.

Argitalpen zientifiko publiko-pribatuetan lankidetzan egindako argitalpenak.

Urtero argitaratutako liburuak, liburu-kapituluak edo monografiak.

ZENTROKO LANGILEEN EGITURARI BURUZKO ADIERAZLEAK (*)

Langileak, guztira.

- 1.– Ikertzaile nagusiak (IN).
- 2.– Ikertzaile iraunkorrak (IP-ak alde batera utzita).
- 3.– Doktoratu ondoko ikertzaileak.
- 4.– Doktoregaiak.
- 5.– Teknikariak.
- 6.– Administrazio eta zerbitzuetako langileak.
- 7.– Beste langile batzuk.
- 8.– Guztira.

Beste langile batzuk (berdin 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8)

(*) urte bakoitzeko abenduaren 31n jardunean dauden langileak.

TALENTUA ERAKARTZEARI BURUZKO ADIERAZLEAK (IKERBASQUEKO LANGILEAK) (**)

Ikerbasqueko irakasle ikertzaileak.

Ikerbasqueko ikertzaile elkartuak.

Ikerbasqueko ikertzaile ikaskideak.

Ikerbasqueko langileak, guztira.

(**) urte bakoitzeko abenduaren 31n jardunean dauden langileak.

TALENTUA ERAKARTZEARI BURUZKO ADIERAZLEAK (MOTAREN ARABERA)

Doktoregaiak.

1.– IKZ.

2.– Eusko Jaurlaritza.

3.– Unibertsitatea.

4.– Beste batzuk (EAEko programak).

5.– Ministerioa.

6.– Beste batzuk (Estatuko programak).

7.– Nazioarteko programak.

8.– Guztira.

Doktoreak (berdin 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8).

Teknikariak (berdin 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7,8).

KANPOKO FINANTZAKETA-ITURRIEN ADIERAZLEAK (%)

– IKZen finantzaketa eksklusiboa.

Finantzaketa publikoa (%).

– Finantzaketa publikoa. IKZ programa.

– Finantzaketa publikoa. Beste batzuk, Eusko Jaurlaritza.

– Finantzaketa publikoa. Beste batzuk, estatukoa.

– Finantzaketa publikoa. Atzerrikoa.

PATENTEEI ETA JAKINTZAREN TRANSFERENTZIARI BURUTZKO ADIERAZLEEAK ETA JAKINTZAREN ZABALKUNDE SOZIALEKO EKINTZAK

Patenteak eta baliagarritasun-modeloak.

1.– Eskatzailea.

2.– Lizentziak.

3.– Ustiatutako patenteak.

Spin-off enpresak sortzea.

Entitate pribatuekin egindako kontratuak edo hitzarmenak.

Entitate publikoekin egindako kontratuak edo hitzarmenak.

Antolatutako biltzarrak, estatu mailakoak eta nazioartekoak.

Nazioarteko biltzarretan parte hartzera gonbidatutako ponentziak.

Goi-mailako politika-bilerak –High Level Policy oriented meetings– (udalak, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernuak, Europar Batasuna eta abar).

Jakintza gizartean zabaltzeko antolatutako jarduerak eta ekitaldiak.

Izandako bisitak (jendea, ikastetxeak, elkarteak eta abar).

PRESTAKUNTZARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Doktore-tesiak.

1.– Idatzitako tesiak.

2.– Guztira defendatutako tesiak.

3.– Nazioarteko tesiak, defendatutakoen %.

4.– Doktorego-tesiak, defendatutakoen %.

Master amaierako lanak.

1.– Egiten ari direnak.

2.– Defendatutakoak.

Doktorego-ikastaroak.

Masterreko ikastaroak.

Ikastaro aurreratuak.

Ikastaroetan parte hartzen duten ikertzaileen kopurua.

NAZIOARTEKOTZEARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Nazioarteko, Europako eta munduko gainerako herrialdeetako sareetan parte hartzea.

Nazioarteko hitzarmenak, Europa mailakoak eta munduko gainerako herrialdeekin egindakoak.

Nazioarteko proiektuak (eskatutakoak).

Nazioarteko proiektuak (emandakoak).

Doktore atzerritarren kopurua (%), langile doktoreen guztizko kopuruari dagokionez.

Doktoregai atzerritarren kopurua (%), doktoregaien guztizko kopuruari dagokionez.

Aldizkari zientifiko indexatuetako argitalpen-kontseiluetako kide diren ikertzaileen kopurua, guztira.

Aldizkari zientifiko indexatuetako argitalpen-kontseiluetako kide diren ikertzaileen kopurua, lehenengo kuartilean.

Eskatutako ERC laguntzak (deskribatu mota).

Emandako ERC laguntzak (deskribatu mota)

Eskatutako EIC laguntzak (deskribatu mota).

Emandako EIC laguntzak (deskribatu mota)

Ikertzaile bisitariak (kopurua).

Ikertzaile bisitariak, batezbesteko egonaldia (hilabeteak).

Zentrora atxikitako edo zentroak kontratatutako Nobel saridunak edo Fields dominadunak.

Nazioarteko aintzatespenak.

Beste adierazle batzuk.

ENTITATE PUBLIKO EDO PRIBATUEKIN LANKIDETZAN ARITZEARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Zentroak Eusko Jaurlaritzak onartutako bikaintasuneko ikerketa-taldeekin lankidetzan egindako proiektuen kopurua.

Zentroak ZTBESko eragile laguntzaileekin dituen proiektuen kopurua (ez-industrialak).

Zentroak ZTBESko eragile laguntzaileekin dituen proiektuen kopurua (industrialak).

BERDINTASUN-ADIERAZLEAK

Langileen banakapena generoaren arabera.

1.– Zuzendaritza zientifikoa.

2.– Ikertzaile nagusiak (IN).

3.– Ikertzaile iraunkorrek (IP-ak alde batera utzita).

4.– Doktoratu ondoko ikertzaileak.

5.– Doktoregaiak.

6.– Teknikariak.

7.– Administrazio eta zerbitzuetako langileak.

8.– Beste langile batzuk.

9.– Guztira.

Zentroko emakumeen %.

Emakume ikertzaile iraunkorren %, ikertzaile iraunkorren guztizkoaren aldean.

Berdintasuna sustatzeko jarduerak (kopurua).

V. ERANSKINA

FINANTZA-PLANA

JARDUERA EZ-EKONOMIKOA. 2022-2025 ETA 2026-2029 ALDIAK

1.– Gastuak.

	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029
Pertsonal-gastuak								
Bestelako gastu arruntak								
Inbertsioa								
Guztira								

2026-2029 aldirako aurreikusitako gastuak justifikatu behar dira; horretarako, izango duten xede zehatzaren deskribapena eta gastu horiek finantzatzeko lortu ahalko diren finantzaketa-iturrien azterketa egingo da.

2.– Finantzaketa.

	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029
Iturri publikoak								
EAEko funtsak								
CIC programa								
IKUR								
Unibertsitatea								
Erkidegoko beste zenbait								
Estatuko funtsak								
Ministerioa								
Beste batzuk								
Nazioarteko funtsak								
Iturri pribatuak								
I+G+b-ko kontratuak								
Mezenasgoa								
Dohaintzak								
Patente, lizentzia eta abarren bidezko itzulkinak.								
Beste batzuk								
Guztira								

2026-2029 aldirako aurreikusitako gastuen aurrekontua finantzatzeko lortu ahalko diren finantzaketa-iturriak zehaztu beharko dira. IKZ zentroari eskusiboki dagokion finantzaketa zehaztu beharko da, bai eta, unibertsitateak edo beste batzuk kudeatzen dituzten eta IKZko ikertzaileen lankidetzarekin burutzen diren proiektuekin lotutako finantzaketa.

3.– Errentamendu-gastuak.

Zehaztu entitatearen lokalen errentamendu-gastuak 2022-2025 aldian, eta 2026-2029 aldirako aurreikuspena. Erantsi gastuen egiaztagiriak (fakturak) eta egoki iriztitako iruzkinak eta informazio osagarria.

4.– Zentroaren esperimentaltasun-gastuak.

Zehaztu, 2022-2025 aldiari dagokionez, laborategian edo hortik kanpo esperimentu bidez egindako ikerketak direla-eta instalazioetarako, laborategietarako, tresna espezifikotarako eta enparauetarako erabilitako zenbatekoak. Egin 2026-2029 aldirako aurreikuspena ere.

IKZen lan-jarduera esperimentalen kostua	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029
Ekipamendua								
Erreaktiboak								
Tresna espezifikoak								
Beste batzuk (zehaztu)								
Guztira								

5.– ZTBESren zerbitzura dauden azpiegitura berezi handien kudeaketan espezializatutako ikertzaileekin lotutako gastuak.

Adierazi azpiegitura berezi handien kudeaketan espezializatutako ikertzaileen 2022-2025 aldiko gastuak (laguntzen aginduaren 10.1 oinarrian ezarritako irizpideak betetzen dituztenak) eta 2026-2029 aldirako aurreikuspena. Adierazi langile bakoitzaren xehetasunak eta eginkizunak.

	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029
Ikertzaile espezializatuen kostua (azpiegitura handi bereziak)								